

Burujabetza irabazteko konfrontazio demokratikoa prestatu

Hausnarketarako agiria

ELAren NAZIO BATZORDEA

Bilbon, 2005eko irailaren 12a

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Burujabetza irabazteko konfrontazio demokratikoa prestatu

ELAREN NAZIO BATZORDEA

| | |
|---|-----------|
| 0. Sarrera | 3 |
| 1. Aukera estrategikoak: ELA nazio-prozesuan | 3 |
| 2. Egungo egoera | 7 |
| 3. Gure sindikatuaren posizioa eta konpromisoa | 12 |

0

Sarrera

1. ELAk gure herriaren aldarrikapen nazionalekiko konpromisoa hartua du, baita bakearekiko ere. Agiri honetan ELAko Nazio Batzordeak egungo une politikoaz egin duen azterketa jaso da, batik bat baketzearekin eta gatazka politikoaren konponbidearekin zerikusia duten gaiei buruz; zorionez, gaur gai hauek eztabaida politikoaren lehen planoan daude.
2. Azterketa hau egiterakoan gure autonomia aintzat hartzen dugu, berau baita gure eredu sindikalaren oinarri. Egungo eskenatokian bakea lortzeko eta gatazka era demokratikoan bideratzeko nahiarekin batera hor diraute gunee politikoak bereganatzeko lehiak, desadostasunek eta beste hainbat galdera nahiz ezezagunek. Horrek guztiak geure azterketa egitera behartzen gaitu, erakunde sindikal garen aldetik ekarpen berezia egin nahi badugu bederen.
3. Badakigu luzatzen diren eta aktore, talde etab. anitzengan eragina duten bake- eta gatazken konponbide-prozesuak konplexuak izan ohi direla; halakoxea da hau ere. Horregatik, beste ezer baino lehenago aintzat hartzen dugu gutxienik gure herriaren baketzearekin zerikusia duena jorratzeko ardura dutenek garaiotan taxu dezaketen saio oro. Sor daitekeen edo etorkizun den itxaropen nahiz ekimenik ez dugu zapuztu nahi; alderantziz baizik.
4. Horregatik, agiri honek (1) nazio-prozesuarekiko gure jarrera estrategikoaren osagai nagusiak gogoratu nahi ditu, (2) egungo egoera politikoa aztertu eta (3) aro honetarako gure jarrera eta konpromisoak zehaztu.

1

Aukera estrategikoak: ELA nazio-prozesuan

5. Denboran atzera eginez, 1998ko irailean egin zen Lizarrako Adierazpena oro har euskal politikak, eta zehatzago autogobernuak, bizi zituen gorabeheren aurrean eman zen erantzun koherentetzat jo zuen ELAk. Halaber, adierazpen hura bat zetorren 1997ko urrian Gernikan agertu genuen gure jarrerarekin. ELAren irudiko, gatazkaren konponbidean aurrera egiteko modu bakarra euskal herritarrei erabakitzeko eskubidea zor zaielako ideian bat datozen indar politiko eta sozialak metatzeko prozesu bati ekitea zen.
6. ELAk Gernikan ohartarazi zuen borondateak batzea posible izan zedin prozesuak ezinbestean zibila eta demokratikoa izan behar zuela; beraz, biolentzia ez zela baliabidetzat aintzat hartuko. Gure sindikatuak jarrera hau dagoeneko 60ko hamarkada hasieran erabaki zuen, armen bidea langile-klasearen borroka baldintzetarako egokia ez zela iritzi baitzion orduan.

7. ELAk Lizarra-Garaziko garaia autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen duten indarrak biltzeko une egokitzat ikusi zuen. Egoera haren kudeaketan, gainera, gatazka historikoaren beste alderdi batzuk jorratzeko aukera ere bazegoela uste izan genuen: bake-prozesua, balizko egitura juridiko-instituzionalei buruzko hausnarketa, lurraldetasunari eta erabakitzeko esparruei buruzko eztabaida, etab.
8. Gure ustez, zehaztasun programatikoarekin batera bazegoen konfrontazio demokratikozko dinamika bati ekiteko aukera ere, Euskal Herria nazio eta subjektu politiko delako aitortpena lortzeko indar-erlazioa osatze aldera.
9. Lizarra-Garaziko hipotesiak 1998 aurreko urteetan esparru laborar, sozial eta politikoan oso aktibo izan zen euskal gehiengo sindikalaren zinezko konpromisoa posible egiten zuen. Ekarpenei sindikalik behinena prozesu soberanistari eduki soziala ematea zen, hots, nagusi den logika neoliberalaren aurka bere baitan gizarte-eredu justuago baten osagaiak izango zituen. Hori lortzeko ELAk uste zuen bere gain bi konpromiso nagusi hartu behar zituela: (a) aliantzak batik bat bere egitekorik naturalena garatzen duen esparru laborar eta sozialean bilatu (eta horretarako gehienbat ELA eta LABen inguruan hezurramitzen zen batasun sindikalari jite estrategikoa eman), eta (b) nazio-prozesuan langile-klaseko kide gero eta gehiagok gure proiektu abertzale eta klasekoa oinarritzat hartuta konpromisoa hartu eta militantziari ekin ziezaioten lan egin.
10. Erabakitzeko eskubidea ukatzen digun estatu bati aurre egiteko gure ustez hainbat gauza dira beharrezko: ongi lotutako aliantzak, militantzia, eduki soziala eta konfrontazio demokratikorako borondatea. Eta ez soilik estatuak; baita bere egitura eta alderdi politiko nagusiek, konfederazio patronal zein sindikalek, zein beste instituzio eta botere faktikoek ere, bere egin dute Espainiako batasun haustezinaren printzipioa; eurentzat Espainian datza subiraniamendua guztia. Guri dagokigunez, gogora dezagun sindikatu espainiar nagusiak, kudeatzen duten gai orotan, deszentralizatzeko edozein ekimen –berau zatikakoa eta txikia izanagatik– mugatu eta galarrazterakoan politika bateratzaileen laguntzaile ez ezik agente oso aktiboak direla.
11. Indar autodeterministak bildu beharra eta konfrontazio demokratikoa aipatzen ditugunean ez gara gatazka sozialari uko egiteaz ari. Prozesu horrek dialektikoa izan behar du eta gatazka bere baitan hartu, ez bakarrik botere ekonomikoen aurrean, baita autodeterminazio eskubidearen aldeko indarrek kudeatutako botere publiko eta instituzioen aurrean ere.
12. Gai hau gaur-gaurkoa dugu. ELAk ez ditu auzi sozial eta laboralak beste zerbaiten menpean jartzea ontzat ematen duten jarrerak onartzen. Batetik, borroka sindikala –klase-duintasunaren alde diharduen heinean– ez baita menpeko edo bigarren mailako kontua; aitzitik, izate eta garrantzia berez du. Bigarrenik, langile-klasearen eskari sozial eta laboralak prozesu sobera-

nistan aintzat hartzea justiziazko betebeharra dela ziur gaudelako; horrek prozesua sinesgarriago egiten du eta klase xeheak areago erakartzen ditu.

13. Jite sozial hau jorratzeko aski arrazoi badago. Hain zuzen, ELAren ikuspegitik, burujabetzara eramango duen prozesu bati ekiteko arrazoirik positibo eta itxaropentsuena egitate batean datza: gizarte zibilean herri garen aldetik erabakitzeko borondatea hedatzen ari da. Halaxe zioen XI. Kongresuko ponentziak: «Kontzientzia sozialaren aurrerakada hori da daturik garrantzitsuena aurrean dugun aitorten prozesurako. Eta aitorten prozesu horretan indarra ez da egongo hainbeste, gure ikuspegitik, argudio teorikoetan edo euskarri juridiko-instituzio-naletan, baizik eta aktoreak eta erakundeak mugiarazteko moduko dialektika sozial bat sortzeko gaitasunean».
14. Prozesuak batez ere soziala izan behar badu eta bere baitan klase-gatazka aintzat hartzea beharrezkoa bada, begibistakoa da autonomia (ideologiko, organiko eta estrategikoa) dela erakunde sindikalei dagokien eztabaida politikoaren mamia, baldin eta haiek prozesu nazionalan ekarpen berezi bat egin dezaketela eta egitea dagokiela uste badute. Autonomia horrek baldintzatzen du praxian sindikatuen arteko lankidetzaren hedadura eta norainokoa.
15. Lizarrako adierazpenaren osteko urteetan ELAk hausnarketa horiek eta bere proposamen politikoak sakondu egin ditu. Hala, Nazio Batzordearen 2002ko apirilko ebazpenean («Proposamen soberanista baterako apunteak»), ELAk egungo esparru juridiko-politikoa gainditzeko helburua izango duen prozesu baten proposamena egin zuen, oinarritzat autodeterminazio-eskubidea hartuta. Orduan bezala, orain ere ELAren iritzia honakoa da: «Euskal herritarrei dagokie burujabetza: printzipio hori gauzatzeko herri kontsultara jo behar da».
16. ELAren ikuspegitik, herri-kontsulta egiteko eskubidea funtsezkoa da esparru juridiko-politikoa errotik aldatu nahi bada. Haustura ezinezkoa da estatutuan jasotako prozeduren bidez. Une honetan ezin da, gure iritziz, estatuak emandako eta zaindutako esparru batetik printzipio eta praxi demokratiko legez euskal erabakigunea bermatuko duen marko batera igaro. ELAren ustez, hain zuzen, kontsultak berak ez luke, noski, gatazka konponduko, baina haustura demokratiko bat adierazteko baliagarria litzateke, eta xedetzat dugun prozesua beste zehaztasun, praxi eta zilegitasun maila batera eramango luke.
17. Ebazpen hartan bi kontsulta egitea proposatzen genuen. Lehenaren bidez euskal herritarren burujabetza baiestuko litzateke de facto. Estatus politiko jakin baten aukera beranduago egitekoa zen, hain zuzen, burujabetzaren adierazpena eztabaida alderdikoietik babesteko. Auzi hau oraindik ez da konpondu, adibidez Eusko Legebiltzarrak onartu zuen estatutu politiko berriaren proposamena kudeatzerakoan agerian geratu denez.
18. Argi zegoen era honetako edozein aitzinatzek (kontsultari buruz) estatu espainoleko indarren aurkako erantzun gogorra ekarriko zuela. Horrela, PPK eragin zituen lege-aldaketak medio

konsulta egitekotan lehendakaria espetxeratzea posible izango zen. Baina egoera ez da gehiegi hobetu: aski da egungo gobernu espainolak Madrilgo gorteetan Eusko Legebiltzarrak onartutako estatutu politiko berriari eman zion erantzuna gogoratzea, edota Kataluniako estatutuarekiko agertzen duen jarrera.

19. ELAren aburuz, kontsultaren bidea «erronka demokratiko» bat da: bere esanahia eta irekitzen dituen aukerak edozein konstituzioren ezarpenetik etorritakoak baino askoz handiagoak dira. Gainera, aldarrikapen soberanista eta demokrazia zuzenaren jarduna bat egingo litzuzkeen aldetik, gizartean zilegitasun handia lortu eta nazioartean ere oso onargarri gertatuko litzateke.
20. Egun bizi dugun testuinguruan premiazkoa da bereziki Nafarroan indarrean den ordenamendu juridikoa –Foruaren Hobekuntza– agortuta eta legitimitaterik gabe dagoelako diagnostiko politikoan bat datozen indar politikoen artean minimoen akordio bat lortzea. ELAren aburuz, akordio horrek indar haien estrategia komuna jaso beharko luke, lanerako helburu batzuk eta edukia finkatuz, betiere interes alderdikoen edota hauteskunde-lehiaren gaindi. Akordio honen funtsa, gure irudiko, sakontze demokratikoaren aldarrikapenak behar luke, herritar nafarrei erabakitzeko eskubidea bermatuko dien marko baterantz aurrera egiteko.
21. Aipatzekoa da ere Ipar Euskal Herrian herritarrei egin beharreko kontsultaren aldarrikapena plazaratu dela, kasu honetan helburutzat lurraldearen aitorpen instituzionala hartuta. Hau urtetan herritarrek mobilizatu eta hautetsiek galdegin izanaren ondorio da; estatu frantsesak eman dien erantzuna erabateko ukoa izan da, euskal departamendua edota euskararen ofizialtasuna aitorpenaren moduko aldarrikapenetan. Gaur, sektore abertzaleen eta departamenduaren aldeko mugimendu guztiaren lanari esker Ipar Euskal Herriaren aitorpen instituzionalari buruz erreferenduma egiteko eskaria azkartu egin da.
22. Esan dezakegu 2002 eta 2005 bitarteko urteetan kontsultaren esanahiak indarra hartu duela euskal herritarrek beren etorkizuna erabakitzeko bitarteko legeez.
23. 1997tik honako gure ildo estrategikoei buruz egin dugun atal hau amaitzeko honakoa esan daiteke: ELAren ustea zen, eta oraindik ere hala da, jite soberanista izango duen ibilbidea hastea prozesuan bustitzeko prest dauden indar politiko eta sozialei dagokiela.
24. Hori arrazoi bategatik gogoratzen dugu: ENAMek 2004 urteraino izan zuen lan politikorako hipotesia, hain zuzen, nazionalismo instituzionalarekiko ituna izan zelako. Nazionalismo instituzionaleko sektore garrantzitsuak ziurrenik bat zetozen hipotesi honekin. ELAk, bere aldetik, lankidetzaren hipotesi hori onargarria izanagatik ezinbesteko ez zuen jotzen. Gure ikuspuntutik, prozesuari ekiterik bazegoen erakunde gutxiagoren artean, eta gero autodeterminazio eskubidearen aldeko beste borondate eta tradizio politikoak erakartzen joan.

2**Egungo egoera**

25. Azken hiletan sakoneko norabide aldakuntza bat gertatu delakoan gaude, Lizarra-Garazin mahairatu zen hipotesitik (eta are Batasunak Bergaran plazaratu zuenetik) ENAMek Anoetan 2004ko azaroan luzatu zuen proposamenera. Funtsean, norabide aldakuntza indar soberanistak batzeko asmotik beste batera igarotzean datza: alderdi politikoak adostasun politiko baten bila mahai baten inguruan biltzen dira.
26. Orduko asmo hartatik gaurkora izandako aldaketa bi egitaterekin batera gertatu da: Bata, joan den urteko udaberrian PSOE Espainiako gobernura iritsi izana, eta bestea, EAErako Estatutu Politiko berriaren tramitazioa (2004ko abenduan Legebiltzarrean onartua eta gero Espainiako gorteetan atzera bota zutena). Aldakuntza ageri-agerikoa da Anoetako proposamenean jasotako bi 'ildoen' zehaztapenean.
27. Norabide berri hau dela-eta, hainbat eragile politiko eta sozialek baketzea lortzeko une egokia izan daitekeela uste dute, eta areago, baita «normalkuntza politikoa» deitzen dutenera iristeko ere. Gainera, uste hori indartzeko beste zenbait puntu gehitzen dute: Espainiako gortek onartutako mozioa (baldintza jakin batzuk betez gero gobernuari ETArekin elkarrizketan hasteko babesa ematen diona), ETAk hautetsien aurkako atentaturik ez egiteko borondatea adierazi izana eta Ibarretxe lehendakariaren inbestidura saioko hitzaldia.
28. Zalantzarik gabe, horrek guztiak beste giro bat ekarri du, eta hau dagokion neurrian, aintzat hartu beharra dago. Baina gure ustez zenbait gauza eztabaidatu, argitu, hitz egin beharra dago... Adibidez, baketzea, normalekuntza edota gatazkaren konponbideak zer esan nahi duten ados egotetik urrun gaude. Gainera, hor daude, beti politikan gertatzen den legez, gobernagarritasunaren eta gune politikoak bereganatzeko lehiaren arazoa. Egoera konplexua da, eta zehatz aztertu beharra dago.
29. Oraingoz aipatu egin nahi ditugu gure iritziz zenbait aktoreren asmoak aldatzea eragin duten faktore eta gertakariak, batik bat 'triangelua' deitu zaionari dagokionez, beraren zutabe nagusiak PSOE, EAJ eta ENAM direlarik.
30. Lehenik, PSOE Espainiako gobernura iritsi izana ENAMek eta gobernuan den nazionalismoak aukeratzat ulertu dute. Egia da zenbait gauza hobetu dela, adibidez Madril eta Gasteizen arteko harremanen normalekuntza, euskal auziari buruz PPrena ez den hitz egiteko era bat, edota gorteetan ETArekin negoziatzeko aukeraren inguruan onartu zen mozioa.
31. Alabaina, ezin ahaztu PPren eta PSOEn arteko itun antiterroristak hainbat bide urratu zuela: berriaz euskal abertzaleen jazarpena, gatazka politikoa beraren existentziaren ukapena eta estatuko egitura guztien aldetik bereizketarik egiten ez duen politika antiterrorista. Eta gaur

arte PSOEk itun antiterroristako funtsezko osagairik ez du aldatu. Areago, beti bezain zorrotz aplikatzen du oso gai minberetan, funtsezko eskubideei dagokienetan (atxilotze eta inkomunikazioa, espetxe-politika, buruzagi politiko eta sindikalen auziperatzea, erakunde eta talde sozial zein politikoen jazarpena polizia-indar eta auzitegien aldetik).

32. Ezin ahaztu ere, bestalde, Espainiako gorteek euskal parlamentuan gehiengo absolutuz onartutako Estatutu berriaren proposamena aintzat hartzeari ere uko egin ziotenean PSOEn gobernua aitzindari izan zela; argi asko utzi zuen horrela gatazka politikoaren mamia era demokratikoan aintzat hartzeko ezgauza dela. Antzeko zerbait ikusten da Kataluniako estatutuaren erreformaren inguruko egungo eztabaidan: aldebateko definizio eta interpretazioaren ondorio den sabai konstituzionalak ez du finantza-autonomiarik, ez estatuak eskumen eskusiboetan esku sartzea eragotziko lukeen blindajerik onartzen.
33. PSOEk, gainera, kanpotik beste presio batzuri egin behar die aurre. PP zinezko oztopoa da euskal auzia bide errepresiboetatik ez doan konponbide orotarako, eta bide batez berezko aliatua du Espainia uniformearen defentsan; egitasmo honetan bi indarrak bat datoz. Baina hutsegitea litzateke adostasun politiko berri batera iristeko zailtasun nagusia PPri egozte, honek eragin nabaria izanagatik; aintzat hartu behar baitira behar den neurrian PSOEk estatu espainolari buruz izan dituen sakoneko jarrerak.
34. Bigarrenik, EHAKen bi botoren laguntzaz lehendakari hautatu zuten Juan Jose Ibarretxeren inbestidura saioko hitzaldiko hainbat puntu, baita alderdien mahai bat eratzeko bere proposamena ere, eskenatoki berri baten adierazgarri dira zenbait eragileren ustez. Hitzaldiko zenbait osagai bazegoen nolabait estatutu berriaren proposameneko sarreran; gobernuko hiru alderdien botoekin batera Sozialista Abertzaleak taldeko hiru kideren bozari esker aurrera atera zen proposamen hari Nazio Batzordeak «garrantzi politiko handiko»tzat iritzi zion (2005eko urtarilaren 13ko adierazpena).
35. Dena dela, zalantza egiten dugu proposatutako mahai hori lehendakariaren hitzaldian aipatutako gai garrantzitsuak (erabakia, lurraldetasuna...) eztabaidatzeko gauza izango ote den. Estatuak ez du lurralde-eredu berri baten eta Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatzearen inguruko eztabaida batean sartzeko borondaterik, ez eta, segur aski, beharrik ere. Areago, ez du beharrik izango ere indar soberanistak gatazka politikoari gorte espainiarrek estatutu berriaren proposamena errefusatu zuten puntuan berriro heldu eta hurrengo urratserako estrategia hitzartzeko, hots, kontsulta bat egitea, gauza ez garen artean. Prozesu hau baztertu izana edozein moduz konfrontazio demokratikoa saihestu nahi dutenen garaipena litzateke.
36. Kontutan izan behar da ere hiru alderdien gobernuak estatuari Gernikako estatutua osatzeko negoziazio berri bati ekiteko eskaria. Asmo taktiko hutsez izan denik bazter ez daitekeen arren

–eta horrela izatekotan ere–, erabat tokiz kanpo dagoela iruditzen zaigu, zinezko arriskua baitakar PSOEk berriro eduki estatutista hutsa duen amarru bat egin dezan. Lakuak manifestazio eta adierazpen politiko eskubideen aurka agertu dituen jokabide batzuk ere ez dute estatuarekiko gatazka demokratikoari ekiteko edota indarrak batzeko asmoa duenik pentsatzeko aukera handirik ematen.

37. Ipar Euskal Herriari dagokionez, egoki irizten diogu herritarren aldetik babes handia duen estrategia bateratua eratzeko indar ezberdinak egiten ari diren lana. Estrategia horren isla zehatza Batera plataformaren lau aldarrikapenak dira –departamendua, euskararen ofizialtasuna, unibertsitatea eta laborantza ganbera–, guztiak ere agintari frantsesek behin eta berriz ukatu dituztenak.
38. Hirugarrenik, ENAMek Anoetan 2004 urteko azaroan luzatu zuen gatazkaren konponbiderako proposamena ere itxaropenerako adierazpidetzat hartu izan da, osagai berriak dituen heinean, bi mahai bereizten dituelako (bat desmilitarizaziorako eta bestea, aldakuntza politikoa negoziatzeko), baita bazterketarik gabeko elkarrizketaren beharra aipatzen duelako ere. ELAk proposamen honetako osagai batzuri egoki iritzi zien. ETak proposamena aintzat hartzen duela adierazteko zeinutzat uler daiteke joan den ekainaren 1etik hona hautetsien aurka atentaturik ez egiteko erabakia. Distentsio erabaki argi honi estatuak distentsio ekintzekin erantzun beharko lieke.
39. Alabaina, proposamen honetaz galdera asko egin daiteke, batik bat bere eragileen egungo jarrera politikoaz. Gure ustez, zehaztu egin behar dira, batetik, zeintzu diren helburutzat hartutako amaierako eskenatokiak, epe ertain eta luzerako eratu beharreko aliantzak, kontutan izanik zalantzazko egoeretan lan egingo dela (estrategia). Eta bestetik, argitu beharra dago zeintzu diren garai berri bat irekitzeko sine qua non edo gutxieneko osagaiak (taktika), kode berri batzuk eta jokamoldeetarako irizpide jakinekin, besteak beste, berehalakoan eta oso argi, bide zibilen aukera.
40. Badakigu edozein desmilitarizazio prozesuk berarekin dakarren zailtasuna. Horrexegatik da hain premiazkoa lehenbailehen eztabaida politikoa hastea, zehatza, gaiak identifikatu eta ulertzeko erraza eta, beraz, gizarte eta politikako ahalik sektore handienentzat sinesgarria izango dena.
41. Gertatutako norabide aldakuntza eta bere eragile nagusiak aztertuta, hausnartzeko beste osagai batzuk gehitu nahi genituzke. Lehenik, agerikoa dirudi inork ez duela indarrak biltzeko asmorik, oraingoaz bederen; aitzitik, nork bere gunea indartu nahi du, gehienez gizartean nola-baiteko babesa bilatzen duelarik, baina betiere eragileen erabaki eta jarrerak baldintzatu gabe.

42. Horregatik, bigarrenez, ELAk ezinbestekotzat jotzen du (eta oso beharrezko, bera ere erakunde sindikal autonomo legez kokatzeko) planoak ez nahastea. Kontu bat da distentsioari heltzeko eta bake-eskenatokira iristeko modua, eta beste zer bait, prozesu soberanista bat berriro nola bultza. Bi planoak bereizteak, biak ere txanpon beraren bi aurpegiak izan arren, noski, argi uzten du zer den desiragarri eta zer egingarri.
43. Hartara, komeni litzateke distentsio- eta bake-prozesuak, zeinaren polo nagusiak ETA eta Espainiako gobernua diren, aski adostasun, gizarteak eta esparru politikoak emandako babes eta legitimazio nahikoa izatea.
44. Bake-prozesu baten baitan ezin ahaztuko da, edonola ere, biolentziaren erabilpena estatuko botereek argudiotzat erabili izan dutela demokraziaren eta giza-eskubideen aurkako erasoak justifikatzeko: presoek sakabanatzea, torturak edota alderdi nahiz hauteskunde-zerrenden legez kanporatzea. Hauek guztiak premiaz konpondu beharreko egoera bat taxutzen dute.
45. Beste plano bat dugu gatazka politikoari eta, hortaz, prozesu soberanistari dagokiona. Honek ez du estatuko indarrekin konpromiso edo adostasunik eskatzen, edo ez behintzat laster batean. Areago, indar horiekiko (PSOE) konpromisoa litzateke gatazkaren konponbidea autodeterminazio-eskubidearen aitortzean datzala aldarrikatzen dugunok une honetan gutxien behar genukeena. Prozesu bien garapenak –bakeak eta gatazka politikoak, alegia–, ez du zertan simetrikoa izan beharrik.
46. Izan ere, bestela izatea nahi genukeen arren, autodeterminazio-eskubidea aitortzean ez dago baldintza egokirik, ez estatuaren heldutasun demokratikoari, ez bat egindako indar soberanistek dagokienez.
47. Hirugarrenik, aurrekoaren bistan, indar autodeterministek minimoei buruz ezer hitzartu ez izana egundoko zama dugula litzateke ondorioa. Guztiok «zer egin» horri buruz ados ez egoteak, gutxieneko egitasmo hitzarturik ez edukitzeak, edozein eztabaida esparru jakinak bereganatzeko lehiaren edo gobernua sustengatzeko moduari buruzko auziaren menpe jar dezake, inolako ikuspegi estrategikorik gabe.
48. Horren guztiaren argitan honako ondorioetara iritsi gitezke, eta horiek lagungarri izango dira gure posizioa eta konpromiso sindikala zehatzago kokatzeko:
49. Lehenik, begibistako errealitate bat hartu behar da aintzat: adostasun batera iristeko helburua ezarri duten alderdien asmoak ez dauka, inondik, konfrontazio demokratikoa bultzatzeko indarrak biltzeko xedea duen prozesu batekin zerikusirik.
50. Indar politikoen arteko adostasuna bilatzen duen eremuan (bide batez, eredu horren funtsa adostasuna izateak beto-eskubidearen aukera dakar berarekin) erakunde sindikalen egiteko

bakarra alderdi politikoek erabakitakoa babestu eta legitimatzea litzateke; alderdi politikoek aipatu dituzten jarrera eta lehentasunetan, gainera, ez dago eztabaidan gizarte-ereduari buruzko edukirik aintzat hartzeko inongo asmorik.

51. Halere, alderdien mahaiaren asmoaren aurrean ELA irekita dago, eta jarrera aktiboa izango du balizko mahai politikoa osatuko duten indar desberdinekin harremanak izateko. Ez soilik jarraipen egokia egite aldera, behar denean ere iritzia eman eta ekarpenak egiteko baizik, elkarrizketa eta negoziazioaren edukiei buruz horiek adieraztea lehentasunezko edo funtsezko ikusten duenean. Aukera hau zuzenagoa iruditzen zaigu agian menpeko izango litzatekeen mahai sindikal batean parte hartzea baino.
52. Bigarren ereduan –jite autodeterminista izango duen indarrak biltzeko ahalegina– (haxe da gure iritziz prozesu soberanista dei daitekeen bakarra) ezinbestekoa da gizartearen parte hartze mailarik handiena, jendea erakartzea eta militantziarako konpromisoa baitira lehentasuna. Ikuspegi politikotik hau dugu ELA egungo diseinutik gehien aldentzen duen puntua. Agian plano teorikoan aipa daiteke mahaiaren asmoa indarrak bategiteko prozesu batekin batera litekeela. Baina biak bateratzea praxian ezinezko dela uste dugu: asmo baten eta bestearen premia eta erritmoak, egitekoak eta are, aliantzak, desberdinak dira. Horregatik, berriro diogu: ELAren aburuz, autodeterminazio-eskubidearen alde gizartean indarrak batzea da prozesu zinez soberanista bati ekiteko bide bakarra.
53. Bigarrenik, egungo egoera esparru sindikalean LABekin adostasunak lortzeko ez da egokiena. ELAren eta LABen inguruan osatutako aliantza sindikala –ESK, STEE-EILAS edota EHNE ere bildu zituen– Lizarra-Garaziko garairaino oso modu egokian eta leialtasunez garatu zen. Egia da ziurrenik gaurkoa baino askoz zailagoa zen epealdi hartan ere ekintza bateratua kudeatzerakoan kontraesanak eta gorabeherak izan zirela; halere, lankidetzak eta elkarren arteko lehiaren ginetik helburu eta interes bateratuak jarri izanak ELAren eta LABen artean konpromiso sakona eta konplizitate handia ekarri zuen, eta horrek sortzen ziren arazoei irtenbideak ematera behartu zituen bi aldeak.
54. ELAk uste du Lizarra-Garazitik hona ekintza bateratuak gainbehera izan duen arren ez dugula prozesu hura ahaztu behar, ez eta bera posible egin zuten oinarri eta harremanetarako arauak ere; are gutxiago saiatu behar litzateke egungo desadostasun eta gorabeherak azaltzeko iraganaren interpretazio berriak egiten.
55. Egun LABekin negoziazio kolektiboari buruz daukagun desadostasuna egiturazko eta atzera ezineko bilakatzeko arrisku handia dago. Beraz, beharrezko jotzen dugu zenbait jokabide sindikal aipatzea, gure ikuspegitik ekintza sindikalari lehentasuna ematen dion norabide erreibindikatibo batekin ezin bateratukoak baitira: administrazioko eta sektore pribatuko minoria-akordioak; izatezko aliantza UGT eta CC OOekiko; behin eta berriz sektore eta enpresa mai-

lan enpresaburuekin edozein eratako akordiotara iristeko jarrera... horrek guztiak biziki kezkatzen gaituen tesi bat indartzen dute.

56. Gure aldetik ekintza sindikal erreibindikatiboaren aukerari eusten diogu. Ekintza sindikal hau –etengabe aktibatua, beste egiteko eta estrategiekiko autonomia– dugu taxuzko batura sindikal bat finkatzeko oinarririk sendoena, bai eduki laboral, sozial eta politikoei, bai bere ikuspegi estrategikoari dagokienez.

3

Gure sindikatuaren posizioa eta konpromisoa

57. Gure posizio estrategikoaren eta egungo egoeraren azterketa zehatza egin dugu. Horrela gaurko egoera politikoan gure ekintzan aintzat hartuko ditugun irizpideak eta konpromisoak hobeto defini ditzakegu.
58. Hasteko, gure herriaren baketzearen aldeko konpromisoa hartu dugu. Gure azken kongresuan genioen legez, «giza eskubideen errespetuarekin eta bizikidetzaren gizatiarrago batekin lotutako erakundea gara». Gainera, giza eskubideen errespetuak, gizalegezko bizikidetzak eta distentsioak gatazka politikoaren konponbidean aurrera egiteko aukera emango digute.
59. Hori dela-eta, ELA gai hauetan konpromisoak hartzeko prest dago, betiere bere azterketa eta iritzien arabera. Badakigu halako konpromisoak sarri egoera konplexuetan hartu behar direla, askotan esparruak bereganatzeko lehia eta gatazkak medio. Honek, ordea, ez du galarazi behar erakunde sindikal abertzale garen aldetik geure ekarpen berezia egiterik.
60. Autogobernuari eduki soziala ematea lehentasuna dugu erakunde sindikal legez. Gure indarrak ahal den erarik aktiboenean egiteko jakin batzutan erabili behar ditugu: eredu sindikal erreibindikatiboaren garapena, helburutzat lan baldintzen hobekuntza eta kolokako lanaren aurkako borroka dituen, eta justizia zein elkartasun handiagoa izango dituen gizarte bat eratzekeo gizarte-eta zerga-politika aurrerakoien aldarrikapena. Hauek dira egoera okerrenetan dauden taldeen egoera (emakume, immigrante, gazteena) benetan hobetuko duten urratsak.
61. Konpromiso honek ikusteko moduko ondorioak ditu, praktiko eta zehatzak, herrigintza eguneroko lantegi bilakatzen dutena. Erakunde sindikal legez hartutako konpromiso horren adierazpen dira, adibidez, lan-harremanen eta gizarte-babeseko euskal esparrua sortzearen aldeko gure lana (eskubide laboral eta sozialei buruz legegintza ahalmena izate aldera); euskal gizarteak gehien aldarrikatu dituen atal soziolaboralak aintzat hartzen ez dituzten negoziazio eta itun politikoak amaitutzat eman ez daitezzen egiten dugun ahalegina, edota aliantza sindikal eta sozialak egungo egoera bezain konplexuan posible egiteko lana.

62. Prozesu soberanistari buruz, gure azterketan ongi irizten diogu alderdien mahaiari, bakearen helbururako baliagarri izan daitekeena, baina ez gatoz bat zenbaitek egitasmo horretatik etor litekeenaz dituzten itxaropenekin. Horregatik, ELAk konpromiso aktibo eta militanteari eutsiko dio autodeterminazioaren aldeko indarren arteko minimoen itun bat erdietsi ahal izateko; horrek emango liguke estatuari era demokratikoan aurre egin eta euskal erabakigunearen aitorpena lortzeko aukera. Lanean jarraituko dugu iritzi hau hedatu eta hipotesi politiko hori gauzatu ahal izateko baldintzak sortze aldera. Prozesuari egin diezaiokegun ekarpen nagusienetako bat instituzioekiko edo lotura familia politiko jakinekiko menpekotasunik ez duen gune sozial eta politiko bat iraunaraztea da.
63. Borondate honek harreman estua du aliantzen politikarekin; honek gorabehera taktikoetatik at egon behar du, plano estrategikoan kokatuta. Erakunde sindikal garen aldetik aliantzei buruz guztiz errealista izan behar dugu. Argi dago, adibidez, konfrontazio demokratikoaren hipotesiak gizarteko maila eta klase desberdinekin zerikusirik baduela. Hori dela-eta, aliantzak eratzekoan siglak pilatzea baino garrantzia handiagoa du konpromiso zehatzak hartzeko aukera objektiboen azterketak; izan ere, zalantzazko egoerak eta arriskuak sortuko baitira, eta nazio-fronte batean bil daitezkeen indar guztiek ez dituzte agian praxian bere gain hartuko. Arestian esan bezala, uste badugu emandako esparru batetik erabakitzeko eskubidearen aitorpena igarotzearen nolabaiteko «haustura demokratikoa» beharrezko dela, nabarmena dirudi prozesu soberanistak eskatzen dituen aliantzak, a priori, egungo esparruarekiko lotura eta atxikimendu handirik ez duten eta beste batera iristeko zinezko interesa duten erakunde-en batasun estrategikoa izan behar dutela oinarritzat.
64. Prozesu soberanista honek, beraz, erabakimenarekin, aliantzekin eta, noski, lurraldetasunarekin du zerikusia. Azken honekiko XI. Kongresuan esaten genuenez, «nazio osoaren mailako (Euskal Herria egun zatitzen duten erakunde esparruen gaintiko) lan tresnak eta esparruak sortzeko iritzia eta gogoia gero eta indartsuagoak direla herritarren artean». Ideia honekin bat, ELAk konpromiso oso zehatzak hartu ditu, adibidez Manu Robles-Arangiz Institutuak Ipar Euskal Herrian hasitako lana eta Euskal Herriko Laborantza Ganbarari emandako babesa, Lizarra-Garaziko garaitik hona Iparraldean prozesu soberanistaren egitasmo nagusi izan dena.
65. ELA bat dator herritar gehienek borondatea oinarritzko helburu erreibindikatio batzuren inguruan batu eta estatuaren ukoari –kasu honetan, estatu frantsesa– estrategia eraikitzaileekin erantzuteko estrategiarekin, hala nola Departamenduari buruzko herritarrei egindako kontsultaren eskaria gizarteratzea edota jendearen beharrez eta arazoei irtenbide zehatza emango dieten egitasmoak abiatuz. Hartara, ELAko Nazio Batzordeak elkartasuna adierazi nahi die Laborantza Ganbarari dirulaguntza publikoak ematea erabakitze hutsagatik agintari frantsesen jazarpena pairatzen duten herriko etxeei.

66. Prozesu soberanistari buruz «erabakimena» eta «lurraldetasuna» hartu behar ditugu, beraz, gure estrategia eta ohiko praxiaren bizkarrezurtzat.
67. Azkenik, premiazkoa da sakoneko erregenerazio demokratiko baten alde lan egitea. Trantsizio politikoak eta Espainiako Konstituzioak berak ezarritako muga estuak eta tutoretzak ez ezik, eskubide eta askatasun kontutan atzerakada handiak jasan ditugu. Batik bat herritarren eta taldeen eskubideen aurka estatuak eta bere instituzioek egin dituzten erasoak amai daitezen egin behar dugu lana, harik eta funtsezko eskubideak, besteak beste parte-hartze politikoa, bere onera etor daitezen arte. Egitasmo guztiek berdintasunez lehiatzeko aukera izango duten esparru juridiko bat eratzea ere atzera ezineko premia dugu.
68. Ikuspegi orokorrago batetik, gure konpromiso nazionalaren helburua ez da bakarrik kultura demokratikoa berreskuratzea, baizik aberastea ere. Egungo egoeran indarrean da oraindik demokrazia ordezkatzailerik baten ikuskera, parte hartzerik gabekoa eta pobretua, elite batzuk kudeatua; ia erakunde guztietan eta herritarren artean ere oso hedatuta dago ikuskera hori. Parte hartze urriak –hau hein batean alderdiek instituzioetatik bultzatuta dute–, gizarte zibilaren protagonismoa hutsaren hurrenean uzten du, eta horren lankidetzarik gabekoa oso zaila izango da bide soberanista berriak urratzea, edota prozesu haietan aurrera egiteko dauden aurkako jarrerak gainditzea ere. Gizarte-mugimenduek, erakunde sindikalek eta herritar guztiek hainbat mailatan parte hartuko duten herri ereduak dugu gogoan; gure iritzian, «askok» izan behar dute herrigintzaren esparru guztietan proposamenak luzatu, onartu, arbuia eta erabakiak hartzeko ahalmena.
69. Azkenik, gure militanteei, euskal gizarteari oro har eta indar politiko eta sozialei dei egin nahi diegu bakearen eta nazio-emantzipazioaren alde lan egin dezaten. Estaturik gabeko herri baten burujabetzaren aldeko lanak egiteko bat leporatzen digu, aitortutako nazioetan diharduten erakundeen eta gizartearen agendan ageri ez diren borroka eta konpromiso ugari hartu beharra, alegia. Baina halaber herriarekiko konpromiso hau guretzat lan sindikala izugarri aberasten duen motibazioa dela uste dugu.

ELAko Nazio Batzordea
2005eko irailaren 12an